

ERLATIBISMOA ETA EGIA-OSTEA. MARGOLISEN PRAGMATISMO AMERIKARRETIK ABIATUZ ERLATIBISMOAREN ULERKERA ERLAZIONALISTARI KRITIKA ETA ERREALISMO KONSTRUKTIBISTAREN ALDEZPENA

Tesiaren egilea: Andoni Olariaga Azkarate

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Logika eta Zientziaren Filosofia Saila

Tesi-zuzendaria: Ekai Txapartegi eta Joxe Azurmendi

Tesiaren laburpena:

Erlatibismoaren auziak filosofiaren esparru guztiak (ontologia, estetika, moralak, epistemologia...) zeharkatzen ditu eta horien oinarri guztiak astindu. Historikoki behin eta berriz ezeztatua izan da, behin eta berriz barregarri utzia, eskuineko faxismoei zein ezker erradikalari lotua eta neoliberalismoaren zein postmodernismoaren oinarri gisa hartua. Gaur egun, egia-ostearen fenomeno garaikidearekin lotua ikus daiteke.

Ikerketa honetan, eztabaida horietatik aldentzen saiatu eta erlatibismoaren oinarritzko egitura eta izaera zein den aztertzen saiatzen naiz. Azterketaren ondorioa zera da: tesi-ikerketa honetan defendatzen dudana da erlatibismoa konsistenteki defendatu daitekeela, alegia, gauza berari buruzko proposizio kontraesankorrak (A eta $\neg A$) egiazkoak izan daitezkeela, biak faltsuak, edo bietako bat ere ez, aldi berean. Horretarako erlatibismoa tesi hirukoitz gisa ulertu behar dela defendatzen dut, bere ontologia, epistemologia eta aletika (egia-balio) propioekin. Ondorio horretara heltzeko, erlatibismoarekin lotutako auzi garrantzitsuenak planteatzen ditut ikerketan zehar: erlatibismoa kontraesankorra da? Zertan desberdintzen dira egia-ostea eta erlatibismoa? Posizio filosofiko interesgarria da erlatibismoa ala *fait de mieux* pentsaera hutsa? Aurreko galderetatik abiatuz, tesi-ikerketa honetan erlatibismoaren eta egia-ostearen analisi bat egiten dut, zehazki Joseph Margolisen erlatibismo indartsuaren (*robust relativism*) hurbilketatik abiatuta.

Tesi-ikerketa bost kapituluatan zatitzen da: lehenengo lau kapituluetan azterketara jotzen dut, eta bosgarren atalean nire proposamena luzatzen dut. Sarrera gisa erlatibismoaren alor nagusietako auziak zerrendatu eta aztertzen ditut, ontologia, epistemologia, aletika eta erlatibismo kulturalari dagozkionak. Bigarrenean, mendebaldeko erlatibismoaren lehen formulazioaren analisi berri bat egiten saiatzen naiz, Protogorasen erlatibismoa aztertuz. Erlatibismo protogorearra birformulatuz, ontologia indeterminatua eta aletika erlatibista berri bat proposatzen ditut, ontologia platondarrari eta metafisika aristoteliarrari oposatuz. Hirugarren atalean amerikar pragmatismoaren erlatibismoaren garapena aztertu eta Rortyren egia-ostea ukoa analizatzen dut, hurrengo atalari sarrera egiteko asmoz. Izan ere, laugarren

atalak, Margolisen erlatibismo garaikidea aztertzen du. Pragmatismoaren oinarri historikoa azpimarratuz, Margolisen pentsamenduaren influentzia nabarmenen azterketa eginez, metafisika aristoteliarrari egiten dion kritikaren azterketa egiten dut. Margolisen erlatibismoak beharrezkotasun ontologiko eta aletikoak ukatzen ditu, hain zuzen, egia-balio bibalenteak eta munduaren egitura aldaezina. Horrez gain, Margolisek egindako errealismoaren eta idealismoaren batura aztertzen dut, erlatibismoaren ulerkera erlazionalista ukatuz eta egiaren ahaztura postmodernoa gaindituz. Bukatzeko, bosgarren eta azken atalean, Margolisen erlatibismoaren formulazioaz gain, beste pentsalari batzuen (Priest-en dialetheismoa, Azurmendiren erlatibismoa...) ekarpenez baliatuz, erlatibismo konsistente propio bat artikulatzen ausartzen naiz, erlatibismo ontologikoa, aletikoa, epistemologikoa eta logikoa erkatuz, erlatibismoaren formulazio berri baterako egitura balizko bat proposatuz.

Nire tesiak, hortaz, erlatibismoaren azterketara orain arte ez bezalako hurbilpena egin nahi du, erlazionalismoaren eta egia-ostearen kritika eginez, lehenaren konplexutasuna eta filosofian daukan garrantzia azpimarratuz.